



2011ko azaroaren 4a
10. urtea - 435 zk.

durangaldeko astekaria

www.anboto.org

Herririk Herri | 4

Etxe tasatuak saldu ezinik Zaldibarren, prezio garestienak ipini eta gero



Berbaz | 8

O. Zarabeitia: "Amankomunazgoa herri txikiendako erraminta garrantzitsua da"

Kirola | 15

Buruz buruko trinkete txapelketako finalerdiak gaur Abadiñoko Tornosolon

ABADIÑO | 2



Launa plus
Ondua

Launa
Arabar Errioxa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

Ur Partzuergoan sartu da Abadiño

Alkateak dioenez, "bestela, uraren tarifak %90 igo beharko" lituzkete

I Bilduk udalbatza utzi zuen, "gaia atea itxita erabakitzea" salatzeko

KULTURA | 12

Barruetabeña eta Aroma txistulariei omenaldia, bihar

Azaroaren 5erako, biharko, antolatu dute Durangaldean hain ezagun diren txistularien omenaldia. Goizean ekingo diete ekitaldiei Durangon.



Durango | 3

Trena hesiak jasota pasatu izana "kasu aislatua" da, ETSk dioenez

Durangaldea | 6

Estatutuen eta Gai Orokoren Batzordea Amankomunazgoan

Atxondo | 2

Auzo-foroen gaiari berriro helduko diote Agenda 21en

Mallabia | 4

Ibai Lagun 2011 ekimenean parte hartuko dute boluntarioek

Hurrengo eraikuntza
DURANGO

IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behe • Tel.: 94 681 66 73
Iurreta • www.zarateyelaxe.com

Elorriion ere aukera onak

HERRIRIK HERRI >

ABADIÑO

Bizkaiko Ur Partzuergoan sartzea erabaki dute, atea itxita

Al eta EAJren botoekin onartu dute Abadiño Ur Partzuergoan sartzeko tramtazioari ekitea

Abadiñoko Independienteen eta EAJren botoekin onartu tuzuten, eguztenean, urtarriletik aurrera Abadiño Bilbao Bizkaia Ur Partzuegoaren parte iza-teko tramtazioari ekitea. “Hau bezalako gai bat udaletxeko atea itxita erabakitzea” kritikatu zuen Bilduk, eta batzar aretotik alde egin zuten bost zinegotziek.

“Atzeratu egin dugu sartzea, baina Arriandiko Partzuergoak eskatzen dituen inbertsioei aurre egin ezinda, derrigortuta gaude erabakia hartzera”, esan zuen alkateak. Navarroren beretan, “orain arte legez, Bizkaiko Partzuerotik kanpora jarraitzen, saneamenduaren tarifaren %90eko igoera jasango lukete herritarrek”.

J.L. Navarro: “Atzeratu egin dugu sartzeko erabakia, baina derrigortuta gaude erabaki honegaz aurrera egitera”

1998an Durangaldeko Ur Partzuergoa desegin zenetik, Bizkaiko Partzuegoan sartu bako herriek (Abadiño, Berriz eta Atxondo) euren gain hartu dituzte uren eta saneamenduaren berritze eta konponketa gastuak. “Gaur arteko ur eta saneamendu zerbitzuetako udal tarifekin ez da zerbitzuaren

benetako gastua parratu”, dio udal gobernuak aurkeztu duen txostenak, “eta, 2011tik aurrera, Uren Europako Legeak agintzen du tari-fetan jaso egin behar direla zerbitzuaren kostu guztiak”.

Durangaldeko Ur Partzuergoa desegin zenetik, udalak egin die saneamendu gastuei aurre

Sartu arren, “ahilik eta autonomia handiena mantentzera” deitu du EAJk

Bizkaiko Partzuergoan sartzeko proposamenaren aldeko bozka azaltzeko, “aurreko lege-gintzaldian ere” sarrera eskatu zutela esan du EAJk; “gaur egun ez daukagu beste aukerarik”, diote jeltzaleek. Partzuergoan sartu arren, “Abadiñok ahalik eta autonomia handiena mantentzen saiatzen” deia egin du, bestalde, EAJk.

Udalbatzarraren ondoren, “plenoa atea itxita egitea herri-tarren partaidetzaren kontrako neurria” dela salatu zuen Bilduk. “Partzuergoan sartzeko erabakia herriarren aurrean hartzerek ez dute gura izan”, esan zuten. ■ I.E.



Plenoa atea itxita egin izana kritikatu zuen Bilduk, Udaletxe kanpoan egindako adierazpenetan.

Udalbatzak grabatu ala ez “erregulatu beharra”

Herritarbatek plenoa grabatzeagaz ados ez zegoelako eztabai-da sortu ondoren, bertan beherautizuen joanzen urriko azken asteko udalbatzarra Jose Luis Navarro alkateak.

Udalbatzar hartan jorratzeko zen gaia, Abadiño Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartu ala ez eztaba-datzea, eguztenean, 08:30ean eta atea itxita burutu zuten. Horrenbestez, publi-

koan kazetari bi bakarrik zeude-la erabaki zuten Abadiño Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartzeko tramtazioari ekitea.

Udalbatza atea itxita egiteko erabakia hartzeko alkateak

Eguaztenean, 08:30ean, publikoari atea itxita burutu zuten udalbatza

izandako “jarrera autoritarioa” salatu zuen, eguzteneko plenotik alde egin orduko, Bilduk.

Jose Luis Navarro alkateak, “inork ez dugu gogoko udalbatzak atea itxita eta ordu hontan egitea, baina plenoak grabatzeko baldintzak erregulatzeko beharra daukagu”, adierazi zuen.

Gaia zelan erregulatu era-bakitzeko batzarra egingo dute-la iragarri zuen, gainera, alkateak. “Denokgaude plenoak grabatzeagaz ados, baina irudien zer erabilpen egingo den da arduratzentz gaituena”, adierazi zuen alkateak. ■ I.E.

ATXONDO

Auzo-foroen gaiari berriro heltzeko asmoa dute Agenda 21agaz

Irubideko biribilgunea eta ortu ludikoak atontzeko Hirigintza Plana onartu arte itxaron beharko da

Agenda 21eko foroan udalak ikas-turte honetarako proposamenak aurkeztu ditu. Besteak beste, iaz martxan jarri ez ziren asmoetatik, auzo-foroenari heltzeko asmoa agertu dute, auzoek udalean “izan behar duten pisua” edukitzeko.

Urtebete eta gero, Agenda 21eko foroen dinamika hartzute, berriro Atxondon, eta azken batza-

Barraskiko obretan oraingoz ez dagoela higiene arazorik adierazi dute udal arduradunek

rrean herritarrek egindako galde-ra etazalantzei erantzun diente. Besteak beste, Barraskiko obren egoera aipatu dute foroan. Enpresa

sustatzaileak udalari 325.000 euro zor dizkio, eta obrak geldituta dau-de hori dela-eta. Lur azpiko gara-jeetan ura batu dela-eta, higiene arazoengatik kezka agertu du hainbat herritarrek. Udal arduradunek azaldu dutenez, ez dute alar-marako arrazoik ikusi, baina egoera zaindu eta neurriak hartuko dituzte. Bestalde, ordainketa burutzeko negoziazioetan jarraitzen dutela adierazi dute.

Udalaren urteko asmoen artean, udal igerilekuak konpon-tzea eta HAPN Hiri Antolamendu-rako Plan Nagusia onartzea daude. Plana onartu arte itxaron beharko da, besteak beste, Irubi-deko biribilgunea eta ortu ludikoak atontzeko. Hurrengo batzarra abenduan egingo dute, herritarren proposamenak jasotzeko. ■ A.U.



Udalaren eta auzoetako herritarren lotura bultzatu gura dute.

DURANGO

Hesiak goian zirela trena pasatu izana “kasu aislatua” izan da

Egun horretan kable bat erre zen, eta horregatik ez ziren hesiak igo

Juan zen bariku goizean Landakoko pasabideko hesiak goian zeudela igarо ziren tren bi. Euskal Trenbide Sareak-eko ordezkarien esanetan, “udaletxe-ko langile batzuk zazkar batzuk erretzen zebiltzala nahi barik trenbideko kable bat erre zuten, eta horregatik goizeko aldi batean argindar barik egon zen Landako pasabidea”.

Bariku goizeko une horretan tren bik pasatu zuten Landakoko pasabidea hesiak goian zeudela, baina, beti ere, “segurtasun neurriak beteta”, ETSk dioenez: “Hesiak ez zirela jaisten ikusita oinezko abiaduran igarо zuten pasabidea”.

ETSr en esanetan, Landakoko “kasu aislatua” izan da eta ez du zerikusirik oraintsu Ezkurdiko pasabidean gertatu direnkin: “Orduan Ezkurdiko pasabidean egindako doiketak baliagarriak izan dira; Landakoko gertakariak ez du besteekin zerikusirik”. ■ J.D.

Bariku goizean tren bi hesiak goian zeudela igarо ziren Landakoko pasabidetik



Trenek segurtasun neurriak bete zituztela segurtatu du ETSk.

Bidezko Merkataritza hizpide gaurko hitzaldian

Uztartuz elkartea antolatuta, gaur 20:00etan, Bidezko Merkataritzari buruzko informazio-hitzaldia eskainiko dute Eleizetxeako aretoan.

Uztartuz elkarteko kideen ustez, “erosten dugun produktu bakoitzaren atzean bizitza asko daude; horregatik, Bidezko Merkataritzak erlazio aske, zuzen eta zintzoa sustatzen du txirotutako ekoizle, kontsumitzaile eta irabazi asmorik bako artekarien artean”.

Uztartuzek antolatuta, hitzaldia 20:00etan hasiko da Eleizetxeako aretoan

Apurka-apurka, Bidezko Merkataritza hazten ari dela diote; iaztikhona %24 hazi eida estatu mailan. Hitzaldian bertaratzen direnen dudak argitzen ere saiatuko dira.

Gaurko informazio-hitzaldiaaren bitartez, jendea Bidezko Merkataritzako produktuakeskatzera eta probatzera bideratu gura dute Uztartuz elkarteko kideek. ■ J.D.

Bezeroekiko harremana zelan hobetu jakiteko ikastaroa

+Dendak elkartea hainbat ikastaro gauzatuko ditu azaroan eta abenduan. Abenduaren 12an bezeroekiko hartu-emana zelan sendotu ikasi ahal izango dute komertzioetako langileek. Informatikako programa baten bidez bezeroen datu basea sortzen iksiko dute; modu horretara, deskontuak edo erregaluak modu personalizatuan egin ahalizango dituzte, bezeroekin hartueman sendotuz.

Azaroaren 28tik 30era Prozesu bidezko kudeaketa izeneko ikastaroa egingo dute, eta 28 komertziotako kideek euren establezimendua kalitate araudi horretara zelan egokitu ikasteko aukera izango dute.

Azkenik, abenduan ostalritzako zein elikagaien komertzioen janari-erabaitzeari zuzendutako ikastaroak eskainiko dituzte. Izena emateko: comercio@masdendak.com edo 94 681 81 42 telefonoa. ■ J.D.

Bezeroen datu baseak sortuz hartu-eman pertsonalizatuak garatu ahal izango dituzte



IURRETA
1911 - 2011

BANDERAri OMENALDI HERRIKOIA

BANDERAREN MENDURRENEKO GAUA 11

AZAROAK 11	11
AZAROAK 11	11
AZAROAK 11	11

18:30etik aurrera, dantzari plazan TXISTORRA JANA eta lurretako hainbat ospakizunen BIDEO EMANALDIA egongo da, TRIKITIXAZ ALAITURIK.

BANDERAREN MENDURRENEKO EGUNA 11

AZAROAK 12	11
AZAROAK 12	11
AZAROAK 12	12

18:30etik aurrera lurretako plazan OMENALDIA egongo zaio IURRETAKO BANDERAri. (euria eginez gero frontoian)

Ondoren 20:30 inguru AFARI HERRIKOIA egingo da (TIKETAK IBAIONDON 15 €, AZAROAK 9ra arte). Afariaren ondoren ERROMERIA egongo da frontoian TITAU taldearekin.

Apuntatu ahaztu
gabe epearen barruan!

anboto      

ZALDIBAR

Etxe tasatuak saldu ezinik eta babesekoak eraiki barik

80 etxebizitza tasatuetatik 48 eraiki dituzte, eta horietatik 22 bakarrik saldu

Zaldibarren 189 etxebizitza berri egiteko egitasmoa dago zehaztuta. Horietatik 80 tasatuak izango dira, 19 babesekoak, eta gainerakoak libreak. Oraingo, tasatuetan 48 daude altzatuta; Solobarria inguruko etxe



Solobarrian 48 tasatu eta 31 libre eraiki dituzte.

Proiektatuta dauden 189 etxeetatik 80 tasatuak izango dira, 19 babesekoak, eta gainerakoak libreak

horietatik 22 saldu dituzte, bere sasoian zortedun izandako hainbatet atzera egin duelako. Egoera ekonomikoaz gainera, bada horretarako beste arrazoi bat: etxeek baimendutako prezio katuena hartu dute. Izan ere, Solobarriko futbol-zelaia, urbanizazioa eta babeseko etxeak proiektu berean sartu zituen udalak, eta horren kostuari aurre egiteko prezio altuena ipini zien tasatuei.

Gaur egun, 672.000 euroko zorra dauka udalak; kitatzeak "denbora" eramango du

Gaur egun, 672.000 euroko zorra dauka udalak, eta "gauzak aurreratu ahala murrizten joatea" itxaroten dute, parra geratu arte. Jose Andres Urizar hirigintza zinegotziak azaldu duenez, "denbora" eramango du. Bestalde, 31 etxe libre daude eraikita, eta babeseko 19k itxaron egin beharko dute. ■ M. Onaindia

KPlaren araberako igoerak onartu ditu udalak hiru ordenantzatan

Bildu, PSE-EE eta PPren botoekin onartu dute; EAJ abstenitu egin da

Zaldibarko Udalak 2012rako ordenantza fiskalak onartu ditu, hirutan moldaketak eginez. Eguazteanean burututako udalbazarrean, Bilduk, PSE-EEk eta PPk aldeko bota eman zieten moldaketei, eta EAJ abstenitu egin zen. Ondasun higiezinen, jarduera ekonomikoekin eta trakzio mekanikoko ibilgailuen zergak moldatu dituzte

KPlaren arabera igoko dituzte zergak; errentagaz lotuta puntuak gehituko dizkiote

zeuden, eta krisia egon arren igozko ordua dela uste dute. "Igoera ez die euro bat baino gehiago suposatuko familiei", dio alkateak.

Egoera politikoa aztergi
Bestalde, ezinezkoa izan da egoera politikoari buruzko testurik adostea. PPk "ETAREN urteetako terrorismoa" gaitzesteko mozioa aurkeztu du; PSE-EEk, zuzenketa legez, beste bat. Azkenean, Bilduk "egoera berria dela-eta" proposatako onartu du udalak. Bertan, Aieteko konferentzian zehaztutako ibilbide-orria konponbiderako tresnatzat hartzen da. ■ M.O.



MALLABIA

Ibai Lagun 2011, Deba eta Ego ibaiak berreskutzeko

Azaroaren 6an Deba ibaia garbitzeko lan-saioa antolatuko dute Mallabiko boluntarioekin

Bizigura, Deba eta Ego ibaiak berreskutzeko eta balioa emateko programa integralaren barruan, Debegesako Garapen Jasangarriko departamentua Ibai Lagun ekimena jarri du martxan. Ibaiarekiko eta bere naturbalioarekiko sentsibilizazioa sustatzearaz gainera, eskualdeko herritar guztien partaidetza du helburu, boluntarioen lanagaz.

Programa honegaz espezie inbaditzaleen identifikazioa egin eta Deba ibaia garbitzeko I. Jardunaldiak antolatuko dituzte. Azaroaren 6an, Deba eta Ego ibaiak garbitzeko lan-saioak antolatuko

ditzute Eibar, Mallabia, Ermua eta Soraluzen. Goizeko 10:00etan erreka garbitzen astea da asmoa, eta ondoren diploma banatu eta mokadutxoa banatuko diete. 14:00etan amaituko dute lan-saioa. Herritarrei boluntario moduan izena emateko deia egin diete. Azaroaren 13an Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutrikun garbituko dute. Espezie inbaditzaleak aurkitzen laguntzeko deia ere egin dute. *Cortaderia selloana*, *Buddleja davidii* eta *Fallopia japonica* dira errotik kendu gura dituzten espezieak. Herritarrek 943820110 telefona deitu dezakete edo *riodeba@debegesa.com*-era idatzi. Parte-hartzaileen artean mendiko GPSa eta Flychaitzeko bi personendako bisita itsasontziz (Euskalkostaldeko Geoparkearen esku) zotz egingo dituzte. ■ J.G.



Deba eta Ego ibaiak garbituko dituzte. Debegesa

Astelehena **ASTELEHENGORRI** -%10

Asteartea **ARINARIN**

Asteazkena **AHOBETEMUNDU**

Osteguna **GEUREKONTU**

Ostirala **BARIKUNASAI**

Astelehenetik zapatura egunero aukera:

Menu ekologikoa

Menu begetarianoa

Haurrentzat menu erdia

Eskatu **MENU TXARTELA**

10. menua OPARI



EUSKADIN KALITATEAREN IKURRA K HIZKIA DA



SAGARDOA

Eusko Labela duten produktu guzietan bezala Euskal Sagardoa ekoizteko bete behar diren zehaztasun guztiak produktuaren araudia teknikoan daude jasota. Aipatu araudia sagar ekoizleek, sagardo egileek, teknikariekin, Kalitateako arduradunek eta Administrazioen ordezkariek osatutako lan talde batek egin dute. Kalitateari dagokio produktu horren kontrol eta egiaztapen lanak egitea. Norabide horretan azpimarratu behar da marka publiko eta ofizialen kontrol sistemek funtzionatu eginten dutela, eta ikusiko balitz araudia ez dela betetzen ondorioak hartuko lirateke, eta behar diren neurriak hartuko lirateke. Produktua kontrolatzeko lanez gain produktuaren promozio lanak ere egiten dira, merkatuan nabarmentasuna lortzeko, Euskadiko nekazaritza eta arrantza sektoreari balioa emanez.

Euskal Sagardoa, Eusko Labela duten produktu guztiak bezala, hasieratik bukaeraraino kontrolatua egongo da. Alde batetik, sagarraren ekoizpena kontrolatu da, ekoizleak ikuskatu dira, eta horien sagardi eta sagarrak kontrolatu dira. Araudiak bestalde adierazten du nola garraiatu behar den sagarra sagardotegietara, eta azkenik sagardoa nola egiten, ontziratzen eta etiketzen den ere jasotzen du. Sagardoak Eusko Label bereizgarria izateak gauza nagusi bat bilatu nahi du, prozesu osoa indartzea.

Alegia, Ekoizpena, elaborazio eta kontsumoa bultzatzea. Garbi eduki behar da katea guztia eduki behar dela kontuan eta batez ere produktu bat indartzerakoan bertako ekoiezpenaren alde egin dela. 100%ean babestea bertako sagarrarekin egindako produktua. Kalitateak produktu-azterketa ugari egiten ditu hainbat laborategi eta unibertsitatetan. 15 ezaugarri aztertzen dira guztira, besteak beste azidotasuna, alkohol-maila, pH, azido malikoa, azukreak, errautsak eta fenolak. Azken proba, ordea, Kalitatearen kalifikazio-batzordeak egiten du. Batzorde horrek produktua dastatzen du eta bere ezaugarri organoleptikoak balioesten ditu, ikusmenaren, usaimenaren eta dastamenaren aldetik. Hainbat hartziduraren ondoren sagar-muztioa sagardo bihurtu denean, sagardogileak eta Kalitateko teknikariekin erabakiko dute produktua botilaratzeko unerik egokiena zein den. Sagardoa botilaratzeko teknologiak asko aurreratu dira, eta gaur egun, sagardotegi guztiak azken belaunaldiko makinak dauzkate botilaratzeko.

Eusko Labela duen Euskadiko Sagardoa Kalitateak onetsitako botila batean ontziratzen da. Horri esker, produktua erraz identifika daiteke, eta behar bezala babestuta dago argiak hondatu ez dezan. Ziurtatutako produktuaren identifikazioa eta etiketatzea ere Kalitateak gainbegiratzen ditu. Zenbakituta eta kontrolatuta dauden etiketak erabiltzen dira horretarako.



ZOZKETA

BIALDU EUSKO LABELDUN PRODUKTUEKIN EGINDAKO ERREZETA ETA IRABAZI EUSKO LABLEN OTZARA!

Euskal Natilak

OSAGAIAK

- Litro erdi esne
- Eusko Label zigorluko 5 gorringo
- 150 gr azukre
- Bainila hautsa
- Kanela hautsa

NOLA EGIN

Arrautza gorringoak, azukrea eta bainila nahastu egingo ditugu eta astiro-astiro esnea botaz nahasten joango gara. Ur-bainuan natilak egiten ipiniko ditugu, irakiten hasi orduko kenduz. Ontzi lau batera botako dugu eta gainetik kanela hautza botako diogu.

Kalitateko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" produktuekin egindako erreza bat zure datuekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"

- astekaria@anboto.org helbide elektronikoa
- Anboto Astekaria, Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

* Eusko Labelek jasotako erreza guztien erabilpen eskumenia izango du



**Asteko irabazlea:
Mari Carmen Mandiola**

Errezetak bialdu dituzuen gainontzekoek
zuen kamiseten bila eterri zaitezke

DURANGALDEA

Mesie talde elorriarrak eskuratu du sari nagusia Izarren Distiran

12 urteko sei neskek bideokamera bana eraman dute

Mesie talde elorriarrak esku- ratu zuen, joan den zapatu tuan, San Agustin kulturgunean egindako Izarren Distira gala erakustaldiko sari nagusia. 'Euskara onaren saria' irabaztearen, bideokamera bana eskuratu dute 12 urteko sei neskek. Sabina Aizpurua, Eunate Eizagirre, Ibane Kapelastegi, Ibone Ajuria, Matxalen Fondado eta Maider Zubiate izan ziren "antzerki berezia" taula gainean eskanizutenak. Asteburu honetan Txorierriko galan egongo dira.

Bigarren saria, ikuskizun one- nari dagokion argazkikameradig- itala Durangoko Markel Zugazarta- za dantzariak eraman zuen. Hirugarren saria, berriz, Abadiñoko Alejandra Navarro eta Virginiek

eskuratu zuten Latzenen *Laztana* abestiagaz. Alejandra iazko irabazlea da eta MP5 bana eraman zuten.

Antolatzaileek azaldu dute- nez, parte-hartzaileen maila "oso handia" izan da Izarren Distiraren bigarren edizioan: "Jendea kanpoan gelditu zen ikuskizunean ez zegoelako lekurik". Zapatuko azken galan Abadiño, Iurreta, Durango, Berriz eta Elorrioko 25 gazte igo ziren taula gainera, eurek sortutako lanak aurkezteria, zortzi taldetan banatuta. Epaimahaia Ugaitz Alegria, aktore eta dantzariak, Xabi Hoo Enkore taldeko abeslariak eta Maite Gerena Barrena Berriko euskara teknikariak osatu zuten. Aurkezle zereginetan Jon Gomez ETBko *Ibil2d* saioko aurkezlea aritu zen. ■ J. Guenetxea



San Agustin kulturgunea bete zuen Izarren Distirak. Aner Mentxaka

IZURTZA

Herriko Taberna oraingo ostalari berei esleitu diete

Eskaintza bakarra egon da udalaren lehiaketan

Udalaren jabetzakoa den Herriko Taberna errentan emateko ikasturte hasieran lehiaketa publikoa dei- tu zuten, eta asteo udal ardura- dunek jakinarazi dutenez, propo-

Luzatu daitezkeen bost urterako emango dute herriko taberna errentan

samen bakarra jaso dute: hain zuzen, orain arte taberna eroan dutenek egin dute eskaintza.

Azken hamarurteetako Herriko Taberna ustiazeko kontrataua amaituta, Eleizalde 20ko lokalaren ustiapena beste bost urterako emango dute, orain, errentan.

Udalaren webgunean argita- ratu zituzten baldintzetan adiera- zi zutenez, luzatu daitezkeen bost urterako esleituko dute Herriko Tabernaren ustiapena. ■ I.E.

MAÑARIA

Berbalagun-en parte hartzeko gonbidapena

Astean behin egingo dituzte ekimenaren saioak

Euskara gustuko duten guztiei, hobetu gura dutenei, konfidantza hartugura dutenei zein ondo jakin eta ikasten dabiltsanak lagundu gura dituztenei luzatu diete Berbalagun proiektuan parte hartzeko

Euskara gustuko duten guztiei, hobetu gura dutenei zein ondo jakin eta lagundu gura dutenei egin diete deia

ko deia. Astean behin, norberak aukeratutako egun eta orduan, lagun taldean euskaraz berba egi- teko elkartzea du ekimenak ardatz; tabernan, ibilian zein bestelako etean elkarrekin euskaraz mintzatzu jardutea da oinarria.

Parte hartzeko interesa dau- kanak www.durangaldea.blogs- pot.com webgunean edo [durangaldea@aei.org](mailto:duran- galdea@aei.org) helbidean topatu- ko du informazio zabalagoa.

Udaletxeen bertan eman dai- teke parte hartzeko izena. ■ I.E.

BERRIZ

Euskarazko zine eta dokumental zikloa hilabete osoan zehar

Euskarazko zine eta dokumental zikloa jarriko du martxan udalak domeka honetan, *Arthurlanagaz. Amerikanak* etorriko da gero, 8an, *Apaizac Obeto15ean, Mystikal20an, La Chanson de Roland* 22an eta *Bertsolari* 29an.

'Arthur' lanak zabalduko du zikloa, domeka honetan, goizeko 11:30ean

Bestalde, abenduan zehar ereizango dazerikusia. *Katubat Parisen* eskainiko dute 4an eta *Urteberri on amona!* 16an, 22:00etan, eta 18an, 19:00etan. Gainerako filmen ordutegiak, berriz, hauek dira: domeketan 11:30ean izango dira filmak, eta martxetenetan 19:30ean. ■ M.O.

GARAI

Laguardiarako txangoa eratu dute nagusiek hilaren 14rako

Garaiko San Miguel nagusien elkarrekin Laguardiarako irteera antolatu du azaroaren 14rako, hango ingurune eta gastronomia ezagutzeko aukera eskainiz.

Lehenengo bisita gidatua izango dute Heredad de Ugarte upategian. Ardoaren sekretuak hurretik ezagututa, bazkaltzera joango dira Ortu Zaharra jatetxera, 14:30ean. Zainzuriak, piperrak, urdiaizpikoa, patatakerrioxar erara eta bildotsa dastatuko dituzte, edari eta azkenburukoaz gainera. Interesdunek Herriko Tabernan eman behar dute izena, 28 euroren truke. ■ M.O.

Heredad Ugarte upategiko bisita gidatua ondoren bazkaltzera joango dira

Celeste
Jantziak

- Egunean bertan Konpontzen ditugu azpiak, gerriadeak, Kremalerak, botoiak,...

- Gortinak eta etxeeko arropak...

Askatasun etorbidea 10 behean
48200 Durango
Tel: 94 407 17 23
confeccionesceleste@hotmail.es

"BODEGUILLA"
TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85

goizeko 08:00etatik
gabeko 21:00etara
zabalik

clínica dental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria
odontologia orokorra eta espezialitateak

murueta torre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

katerin
ardoak
iñaki
uribe
KURUTIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

Saltsan
saltsan.com

URTIKINTXA
HEZIKETA JOSTAILUA-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 DURANGO

Tel.: 94 681 50 17

Durangaldean labur

Norbere burua zelan zaindu jakiteko ikastaroa abian

Zaindu programaren barruan *Besteek zaintzeo norbereburuazaintza* izeneko ikastaroa egingo dute azarotik abendura Abadiño, Elorrio, Iurreta eta Zaldibarren. Helburua mendekotasuna duen pertsonaren lizaroko zaintza-lanen ondorioak ezagutu eta bizi osasuntsu baterako ohitura egokiak sustatzea da. Informazio gehiago: 94 603 00 46 telefona edo zaindu@durango-udala.net helbidean.

Trikitilari txapelketa hasiko dute domekan

Zaldibarko Udalak antolatu eta koral elkar-teak lagunduta, Trikitilari Gazteen Txapelketa hasiko dute domekan Azkoitian. Fina Zaldibarren izango da azaroaren 27an. Bestalde, Zaldibarren mikologia erakusketa eta umeentzako buztin tailerra egingo dira domekan. Zapatuan sailkatuko dituzte perretxikoak, liburutegi zaharrean.

Elorrioko Bilduren Hurbildu aldizkaria

“Tresna egonkor eta eraginkorra” izateko asmoz sortu du Elorrioko Bilduk *Hurbildu* aldizkaria. Asteon banatuko dute lehen alea etxetxetxe. Aldizkariagaz, informazioa emateaz gain, iritzia jaso nahi dituzte: “Herriar informatuak gura ditugu, kritikoak eta eraikitzeo borondatedunak”.

Adinekoen dantzaldiak Landako kiroldegian

Durangoko Udaleko Adinekoen Sialak jakitera eman duenez, adinekoie zuzendutako dantzaldiak azaroaren 6an hasiko dira berriro, Durangoko Landako kiroldegian. Dantzaldi horiek igandero-igandero ospatuko dituzte, eta arratsaldeko 18:30etik 20:30era izango dira.

■ ELORRIO

EAJ eta Bildu aurrez aurre igerilekuuen proiektuagatik

Estali bako igerilekuuen proiektu-rako ikerketak eztabaidea eragin du egunotan Elorriion. EAJk aurkezu zuen ikerketarako kreditu aldaketa joan zen astean, eta Bilduk eezkoia emanda, “koalizioak gobernu taldearen ekimenak galarraztea” duela helburu salatu dute jeltzaleek. EAJk “herriagatik begiratzen” duen bitartean, “Bilduk intelligentzia bako oposizioa” egi-ten duela diote gobernaturik. EAJ-ren proiektuak “irizpide ekonomiko arduratsu batean oinarrituta” daudela eta igerilekuuen egitasmoak herritarren “irrika” sortzen duela diote.

E AJ aurkezu zuen ikerketarako kreditu aldaketa joan zen asteko udalbatzarrean

Bilduren iritziz, igerilekuak EAJren “kapritxoa” dira. “Legegin-tzaldia hasi zenetik inorekin hitz egin barik, ezer adostu aurretik, kanpoko igerilekuarentzako koka-penari buruzko azterketa egiten ahalegindu dira, 8.000 euroko gas-tua onartuz”, diote. Hala ere, EAJ-ren kirol eta kultur arloko zinego-tziak “haien proiekturik kuttune-na babestera udalbatzarrera agertu-ez” izanari gertaera arraroa deri-to Bilduk: “Bozketa galdu gura al-zuen, Bilduren bizkar gainean uzteko ardura?”, galdeku dute. Bil-du ez dagoela proiektuaren kon-tra dio, baina aurretik kirol siste-mari buruzko hausnarketa sakon eta adostua gura dutela. ■ M.O.

■ OTXANDIO

Julio Gomezek irabazi du kaleko margo lehiaketa

Julio Gomez leioarrak irabazi zuen, joan zen domekan, kale margo lehiaketaren 23. aldia. Kultur Etxe ingurutik begiratuta Udaletxeko arkuea eta plaza ikus-ten dira bere margolanean. 700 euro jaso zituen Gomezek.

500 euroko bigarren saria Jose Miguel Arranz erandiottarrentzat izan zen, eta 350 euroko hirugarrena Leticia Gaspar plen-tziarrantzat. Hainbat otxandiarrek ere parte hartu zuten lehiaketan, eta herriko margolanik onenaren saria Francisco Javier Hernándezek irabazi zuen.

Udal ordezkariek jakinari-zidutenez, aurtengo margo lehiaketa-kazken urteetako parte har-tzerik handiena izan du. Euskal Herriko hamaika txokotatik eto-

Jose Miguel Arranzek eta Leticia Gasparrek lortu zituzten 2. eta 3. sariak

Herriko margolan onenaren saria Francisco Javier Hernándezek irabazi zuen

rritako 30 margolari inguruk har-tuzten parte Otxandion ohitura bihurtu den lehiaketa hone-tan. Parte-hartziale horietatik guztiatik bost herrikoak izan ziren, eta bost horietatik lau hau-rak. Erakusketak iraun zuen bi orduetan, berriz, bolalekuaherri-tarrez gainezka bete zen. ■ J.D.

■ IURRETA



Hainbat iurretar hurreratu zen irailaren 27an udaletxera zaharberritutako bandera ikustera. Anboto

Herriko banderari omenaldia egingo diote iurretarrek

Azaroaren 12an jarri du hitzordua 1911-2011 Herri Batzordeak plazan

Herriko bandera berrituta aurkezu zuten irailean. Mendeurrena bete zuen eguna aukeratu zuten horretaraka, eta azaroaren 12an omenaldia egingo diote iurretarrekeuren banderari. Urte osoko egitarauari amaiera emateko ekitaldia da 1911-2011 Herri Batzordeak eratutakoa.

Elkartetako kideek eta agintariek parte hartuko dute ikuskizun berezian

Aita San Migel plazan egin dute hitzordua, 18:30ean: herriko elkarteeek eta agintariek ikuskizun berezia eskainiko dute, eta dantzari eta bertsolariak ere jardungo dute; euria eginez gero, frontoian batuko dira. Herri-afaria, berriz, frontoian egingo dute, 20:30ean, eta gero erromeria ere izango dute Titau taldeagaz. Ibai-Ondon daude salgai txartelak, hilaren 9ra arte.

Mendeurrenen gaua
Bezpera, berriz, Iurretako banderaren mendeurrenen gaua izango

dute: Dantzari plazan txistorra jana eskainiko dute, 18:30ean, eta trikiti doinuek alaitutako bideo emanaldia; iurretako hainbat

Ikus-entzunezko eta luntxa eskainiko dute, hilaren 11n, Dantzari plazan

ospakizun batzen ditu ikus-entzunezkoak. Astebururako bandera-reñ irudia duten zapiake ere kale-ratuko dituzte. ■ A. Basauri



R.P.S. 214008
A. Urreta padologoa

IMQ AEGON SERSANET SANITAS
Herriko gudarien kalea, 10 - behe
48200 DURANGO
Tel./Fax: 94 621 54 04

- Oinetako patologiak
- Neurrira egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Adinara Urreta Jainaga
PODOLOGOA 188. Elkogikidea

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

BERBAZ >

“Amankomunazgoko komunikazio bideak zabaldu gura ditut langileekin eta udalekin”

Udal bakoitzaren egoera ikusi eta krisialdian zerbitzuak konpartitzeko bidea aztertzeko prest da Oskar Zarrabeitia

Langileekin zein udal ordezkariekin batzartu eta lan berriaren martxa hartzen dabil Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko lehendakari berria. Egoera ekonomikoari buruz eta Amankomunazgoaren erronkeiburuz jardun dugu beragaz.

Amankomunazgoko lehen egun hauetan, zelansomatzen duzu kargu berrikolana?
Beharrerako gogo handiagaz nago. Legegintzaldian edukiko dugun lan dinamika sortzen gabiltza, bidea egiten hasi aurretik pauta batzuk edukitzeko. Amankomunazgoa Astolan dago, baina zerbitzuak sakabanatuta daudenez, zuzeneko hartuemanala lantzeko premia daukagu. Lan dinamika berriagaz astero

“Amankomunazgoko zerbitzuak sakabanatuta daudenez, hartu-emana sendotzeko premia dugu”

batzartuko gara arlo bakoitzeko alderdi urgenteenak lantzeko. Alkatekin ere maiztasunez batzartzea itxaroten dut, udalen beharren gaineran berba egiteko.

Abadiñoko Independienteek EAJri bere jesarlekuak uzteakeztabaidasortudu. Bilduk dio balitekeela Amankomunazgoko estatutuen kontrakoa izatea. Zer iritzi daukazu?

Amankomunazgoaren aldetik baino ezin dut berba egin nik, eta bertako estatutuen arabera, udalbatza bakoitzak erabakitzenten dituen ordezkariek jasotzen ditu Amankomunazgoak. Abadiñoko Udaleko idazkariak adierazi digunez, Abadiñoko udalbatzan gehiengo absolutuz erabaki zuten EAJko zinegotziak ordezkari izendatzea. Guri dagokigunez, ezin dut besterik esan.

Zelan baloratzen duzu PSOEren babes zu presidente aukeratzerakoan? Negoziatiorik egon da?

Amankomunazgoa eratzeko udalbatzaren aurretik PSOEko ordezkariagaz batzartu nintzen. Ipin gura nuen lan dinamika azaldu nion, eta dazkagun zerbitzuei buruz eta eduki genitzakeenei buruz berba egiterakoan, ados egon ginen hainbat puntutan; horregatik babestu zuen PSOEk EAJren hautagaitza. Legegintzaldian alderdi guztiek emango dute iritzia, eta akordioetara heltzen ahaleginduko gara. Nire funtzioa zein den argi daukat nik; komunikazio bideak zabaldu behar



“Izurta lako herri txikientzat beharrezkoa da Amankomunazgoan sartuta egotea; bestela, ezingo genituzke orain ematen ditugun zerbitzuak eman”

ditut Amankomunazgoko zerbitzuak mantendu eta besteren bat gehiago gehitu dadin.

Krisi garaian udalei zerbitzuetan laguntzeko premia nabarmenduzenuen Amankomunazgoko lehen udalbatza hartan. Horrela egin gura dugu, ahal dugun heinean, eta udalek euren konpetentziak edo eskumenak utzi ahala. Amankomunagoko herrien egoerak oso ugariak dira, askotarikoak, bai tamainuagatik bai zerbitzuengatik zein zerbitzu horiek garatzeko langile kopuruagatik. Oreka bilatu behar dugu, eta kostuak aztertu.

Zerbitzuak ugaritzeko aukerarik ikusten duzu? Udalen eskuduntza gehiago hartzeko biderik egon daiteke?

Udal arduradunekin batzartu eta euren premiak zeintzuk diren aztertuko dugu; ea Amankomunazgotik erantzun ahal diegun. Azken finean, Amankomunazgoa, batez ere, udalen diruagaz finantzatzen da, eta zerbitzu berriak planteatzerakoan gure baliabideak ahalik eta ondoen erabili behar ditugu. Udal bakoitzaren egoera desberdina denez, bakoitzak bere iritzia eman behar du, eskumenak emateko prest dagoen ala ez ikusteko.

Oskar Zarrabeitia •

Amankomunazgoko lehendakaria

- 35 urte dauzka
- Enpresaritzan diplomata da
- Izurtzako zinegotzia da (EAJ)

“Behargintza ezinbesteko erreminta da Durangaldearentzat”

Lan arloei dagokienez, turismoa bultzatzeko premia aipatu izan duzu.

Turismoa lanpostu eta aberastasun iturri legez bultzatu behar dugu, eta horretarako, formula publiko-pribatua erabili beharko genukeela uste dut; publikoa den erakundea sortu eta bisitariei zerbitzua ematen dien edozein zerbitzu pribatu barneratu; ostalaritza, aisialdia...

Behargintzaren papera ere nabarmendu duzu.

Behargintza Amankomunazgorako eta eskualdeko ezinbesteko erreminta da. Enpresak sortzeko laguntza, aholkularitza, formazioa... ematen dira bertatik. Eta bertatik sortu da Lehiakortasun Poloa, Azterlan, hainbat enpresa eta hainbat eskolaren bitarte. Durangaldearentzako garrantzia handia duen proiektua egiten dabilta, bertako enpresak lehiakorragoak izan daitezen, teknologian, produktu berrieikin eta merkatu berrietan, gure ezagutza eta esperientzia aprobetxatuta.

Amankomunazgoko erronketako bat gizarte zerbitzu guztiak eraikin batean batzea dela adierazi zu du aurreko presidenteak. Asmo hori aurrera doa?

Guztioan ametsa da, baina gaur egungo egoera ikusita, ezinezko da. Langileek eurek atera dute gaia, eta esan genien gaurko egunez horrelakorik ezingo dugula egin.

Izurtzako zinegotzia ere bazara hainbat urtean. Herri txikietan zelako eragina du Amankomunazgoak?

Nirea lako herri txikiei asko eragiten die Amankomunazgoan sartuta egoetako. Horrelako erakunde bat barik, ezinezkoia izango litzatake –edo asko kostatuko litzateke, behintzat gaur egun ematen ditugun zerbitzuak ematea. ■ A.Ugalde

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Intxaurrendo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

Kataide Industrigunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13



GARBIGAILUA ALF 1106
285 €



GARBIGAILUA WAE20010EE
345 €



GARBIGAILUA 3F2612
315 €



GARBIGAILUA L-72750
385 €




GARBIGAILUA WM12Q470EE
399 €



GARBIGAILUA F-2812
430 €



LEHORGAILUA 2LF-013SX
399 €



EH-651TF11E INDUKZIOA
430 €



LABE PIROLITIKOA 6H-760AX
460 €



INDUKZIOKO PLAKA HK-633220
950 €



HOZKAILUA ZEN-F211
310 €



HOZKAILUA FFJ-6725
575 €



HOZKAILUA FFK-6735X
640 €



HOZKAILUA F-7148NFXDS
699 €



HOZKAILUA KGN 39VI20
660 €



Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperativistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

ETXERAKO
ZERBITZUA.
ZAHARRA
ERAMANGO DA

MERKEAGO
TOPATUZ GERO
DAGOEN ALDEA
BUELATATUKO DA

GUSTURA GERATU
EZEAN DIRUA
BUELATATUKO
DIZUGU

+dendak-EKO
"DURANGO"
TXARTELA
ERABILGARRI

IRITZIA >

Bildu Abadiñoren hausnarketa, Abadiñoko Udala ur patzuergoan sartzearen inguruan

Gai honen inguruan eztabaideatu aurretik, lehenengo eta behin udal gobernuak aurreko legegintzaldian burututako politika aztertu beharra dago.

Dirua oinarritzko lehentasunak ez diren projektuetan xahutzen, modu batere eraginkor batean erabiliz. Gobernu taldeak izandako prebisio eta lehentasun faltaren ondorioz, gaur egun Ur Patzuergoan sartzea behartuta gaudela diote. Egoera honetara eraman gaituzten arazoak ekidin garriak izango lirateke:

1. Urtero-urtero diru kantitate bat zuzendu beharko litzateke ur azpiegituraren inbertitzeko, eta era horretan Abadiñoko uraren autonomia bermatu udalak kudeaketa zuzena izan dezan. Gainera, esan beharra dago gaur egungo gobernu taldea udalean sartu zenean 4 milio euro inguruko diru kantitatea zegoela udaleko arketan, eta ez dituela modu eraginkorren eta herri osoaren onurarako erabili.

2. Aurreko puntuarekin lotuta, urtero diru jakin bat gordetzeak, udalak patzuergoagaz duen zorraren arazoa ekidingo luke. Gaur egun Ur Patzuergoarekin udalak duen hitzarmenagaz, patzuergoak egiten dituen inbertsioen zati proportzionala ordaindu behar du udalak. Proportzio hori handiegia dela deritzo gobernu taldeak, eta horregatik udalak ez ditu patzuergoagaz dituen zorrak ordaindu 6 urtean, modu horretan urteroko zorra handituz ordainezina bihurtu arte, gaur egun arketan ez baitago dirurik.

3. Herriaren etengabeko hazkunde demografikoaren aurrean ezzira udalaz piegiturak herriaren beharizanetara egingo, eta aurreko puntuatuk ondorioztatzen da ez dela inbertsiorik eman azpiegiturei dagokienez, nahiz eta aurreko legegintzaldian oposiziok hala eskatu. Horregatik, aurrekontuetan partida bat gordeko balitz Muntasarazko etxebizitzentzako ur depositu bat egiteko, udalak momento honetan ez luke inbertsio seriorik egin beharko ur azpiegituraren.

Hau guztia dela-eta, Abadiñoko Udala ur zerbitzuaren pribatizazioari buruz eztabaidean dago gaureguen. Bestetik, gai honen aurrean udalak ez du beste alternatibarik bilatu, eta zuzenean jo du Ur Patzuergo sartzeko proposamenera, ur zerbitzua pribatizatzeko duen nahia agerian utziz. Nahi honekin, Abadiñokuren tarifen inguruko kontrola galduko du, besteak beste, uraren kudeaketa absolutua galduz.

Bukatzeko, Bildu Abadiñotik ezioguzilegitasunekin mangogobernutaldeak aurreko legegintzaldian aurrera eroandako politikari proposamen hau onartuz, beraien prebisio falta baten ondorioz gaudelako egoera honetan, beraiek fortzatu dutelako egoera hau eta hori ez delako gure erantzukizuna. Gobernu talde batek ez ditu epe motzeko helburu eta proiektuak bakarrik kudeatu behar, epe luze-ko proiektu estrategikoak ere kontuan izan behar ditu, proiektu politiko oso bat baldin badago. Beraz, ur patzuergoan sartzeko proposameneri ezezko borobia ematen diogu.

Aitor Azueta, Saioa Zuazubizkar, Hibai Urrutia, Irakusne Gorospe eta Maria Luisa Larrion (Bilduko Abadiñoko zinegotziak)

Espainia, jaungoikoa eta lege zaharra

Espainia, Jaungoikoa eta lege zaharrak Erresistentziaren ausardiak botere-gizon axolagabeen aurrean, gizon-emakume bulartsueta eraldatu izan ziren itxaropenezko irudietan hartu zuen gotorleku noizbait. Industrializazioaren ur haudietan ito eta baita bizirik ateraziren langile zein laborariekin, elkarrekin borrokatzeariek eta denboraz, haietako asko gorroto gabe erortzen joan izan ziren mendi goietan kantari. Abesteak guda zelaian onurrik ekartzen ez ziela ohartuz batera, amore eman eta halabeharrez beraien bizitzekizan-

go zituzten baldintza berriei aurre egiteko prestatzen hasi ziren. Eta gogoan ditut, gure zaharrek askotan errepikatutakoak: "Igandetan, eliza aurrean elkartu ohi izaten ziren txapel gorriak erabiltzera behartzen gintuzten herriko errekeete esanguratsuenak. Soinean generamatzen txapelak kenduaz eta kartoioko kaxatan ekartzen zituzten txapel gorriak banatzen ibiltzen ziren txakur amorratuak balira" (...) "Aste Santutan prozesioa ospatzen zen. Oihartzun handia izateaz gain, abade eta apezpiku kopuru haundi batek gidatzen zuen jende uholdeari beti lagundu izan zion udaletxeko ordezkariren batek eramatzen zuen Espainiako bandera sakratuak" (...) "Behin aitak herri inguruko basoren batean zuhaitz batetik denbora dezente zintzilikaturik eramango zuen hilots baten gorputua aurkitu zuen. Abadearengana hurbildu eta aurkikuntzaren berriemanzio. Gorpua lurreratu beharko zela gomendatzearaz batera zera erantzun zion abadeak; zintzilikaturik jarrai dezala, jaungoikoen erreinuan gorriekin ezin izango baitute aterperik aurkitu eta" ... Espainiako historiaren ur laidotsuetan murgiltzeko adorea duen herriar orok, argi asko aurkitu ahal izango ditu faxismoaren erreinuan elizakatolikoak mendeetan zehar leialtasunez bete izandako idazkarilaren arrastoak. Herritarra babesteko eginkizuna betetzen duen zuzenbide estatutuaz, erabakitasun osoz errespetatzen den botere banaketaz, eta herrialde laikoa izateaz harro agertzen den herrialde horretan errealtitatea irudikatzeko beti baliatu izan dira kolore bitaz. Ez al da kasualitatea zigor kodeak barkamen eskaera soilik terrorismo kasuetan aurreikustea? Zer dela-eta garaituak/garaileak izan behar direneko eztabaida hori? Faxismoak infernuko sugarraak indarberritzen jarraitu beharra dauka bizirauteko, eta Europako herri zaharrenetakoan urteetan ETA erakunde armatuak eramandako borrokaren bitarte ere gogoz bete izan jaiotzatik otu izan zitzazkion suhiltzaile lanak.

Aritz Soloeta Garmendia

AHTaren aurkako pegatinak

Joan den larunbatean Durangoko, eskualdeko eta Euskal Herriko hainbat herrian Abiadura Handiko Trena salatzeko azken ekimen bat burutu zen, kaleak pegatinekin betez. Durangoko EAJk egindako salaketak pegatinada hau "soberan dagoen tentsio giroa" sortzen duen erasotzat jo du, AHTaren proiektua inguratzuen duen eztabaidea kalektik ateratzea eta desitxuratzea dela euren azken errekursoa erakutsiz, argudiaketa publikoa izan beharrean.

Honelako ekintzak ez dira burutzen gastatzeko edo "erasotzko" kapitoxo hutsagatik, baizik eta herritarra kontziente egiteko erdi- eta behe-mailako hiritarron beharrizan AHTan gure dirutik, gutxienez, 10.000 milioi euro gastatzeko (egun 5.000 inguru bakoitzaren poltsikotik), etorkizunerako promes egiten diguten errentagarritasunak (izatekotan turismoagatik, merkantziengarria aukera erreala eurek ere ukatzen baitute) urrunetik ere ez duenean konpentsatzen trazatuaren kilometro bakoitzamantentzea urteko kostatuko zaiguna (100.000 km-ko, eta bikoitza tuneletan). Ez da planteatu ere egin gaur egungo trenbide azpiegitura hobetzen inbertitza, kostu ekonomiko eta eko-logiko askoz urriagoarekin, horrek ez baitie onurariak ekartzen ustezko "mugagabeo garapenaren" izenean etengabe aberastzen dabiltsan eraikuntza konpainia espesializatzaileei. Estatuan zehar milaka adibide ikus ditzakegu orain abandonaturik geratu diren tamainako azpiegituraren (urbanizazioak, aireportuak, AHT bideak...).

Aurrekontu publikoetako mozketekein orain arteko gastu sozial minimoagutziz desegiten diguten bitartean, hegaoaldeko bigobernuek proiektu honetara bideratutako gastua %27an igo dute aurtengo aurrekontuetan.

Proiektuan xahututako oraindik %7an dabilen bitartean, garaiz gaude, iparraldean bezala, agintariak zentzugabekei hau bertan behera uztera behartzeko.

Mugitu! Mugimendua

Sei hankako mahaiak



Dani Maeztu

Aralar

Eskualdea aldarrifikatuz

Euskal Hiria Bernardo Atxagak gizarteratutako termino lirikoa izateaz gain, lurralteko antolaketa rako kontzeptu bat ere bada: EAEKO gune populatuenei lehentasuna ematean datza, eta barruko eskualdeei baratz eta zabortegi papera ematean. Durangaldea barruko eskualdea da.

Beti pentzatu izan dut herriarrei begira onuragarria dela eskualde bezala lan egitea. Herri ikuspegitiklan egiteak mugakjarren baitizkigu. Esaterako, garraio arloan, hirigintzan, zaborren kudeaketan, turismoa sustatzeko orduan, energiaz aritzean, garapen ekonomiko a lantzean... inguruko herriekin bat egitea eta elkarlanean aritzea egokiagoa da. Eta gaur egun, hil ala biziko kontua da ikuspegi hori izatea, auzokideen arteko liskarrak alboan uztea eta eskualdearen garrantzia aldarrikatzea.


Durangaldean horretarako sortu omen zen Amankomunazgoa, eta orain zerbitzu gutxi batzuk kudeatzeko bulego handi bat baino ez da, askotan bikoiztasunak sortzen dituena. Hori zuzentzeako, Durangok herri moduan aldaketaaren gidaritza hartu beharko luke, eskualdeko zilborra ez, baina bai erdigunea bilakatu.

Onartu behar dut ez daukada esperantza handirik. EAJk, oraingoan ere, Amankomunazgo koko presidentzia lortu du bere trikimailuekin. Bitxia da 50.000 biztanleren gorabeherak kudeatzeko 62 herritarren bozka jaso duen hautagaia izatea erakundearen buru. Bitxia izatetik larria izatera pasatzen da, kontuan izanda hautagaiaren izendapena alderdi barruko labankaden ondorioz bizirik geratu denaren esku utzi dutela. EAJren barne liskarrek agerian utzi dute ez dute la inongo asmorik Amankomunazgoaren norabidea aldatzeko.

Bestela, Aralarrek elkarlana eskanikoi lioke eskualde ikuspegia aldatzeko helburua eta aurrekoen kudeaketa ereduak aldatzeko asmoa lukeen presidenteari; horretarako, kanpo-ikuskaritza batekin hasteko proposamena egiten dugu, norabide aldaketen seinale izango litzatekeena.



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkartea
2011ko azaroaren 4a - 10. urtea - 435 zk.

Laguntzailea:
BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia

Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itzair Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanita de la Cruz.

KULTURA >

DANTZA > ELKARRIZKETA

“Emanaldian eduki nuen templea goraipatu zuten nire irakasleek”

Zapatuan Bilboko Euskalduna jauregian burutu zuten ‘Euskaldunak eta dantza’ ekitaldian aurkeztu zuen **Maider Gonzalez** durangarrak ‘Mascherata’ lana. Madrilen, Victor Ullateren eskolan dihardu ikasten

Noiztik diharduzu Madrilen, Victor Ullateren eskolan ikasten?

Ikasturte honetan etorri naiz, eta nire asmoa da, hemendik abiatura, dantzan modu profesionalean jardutea etorkizunean.

Aurretik Durangoko L’atelier dantza eskolan ibilitako osoa zara. Bai, hamaika-hamabi urtegaz hasi nintzen L’Atelier-en, DBHko lehenengo mailan nengoela. Oiane Azkonizagaren klaseak, ikastaroak etab. hasi nintzen jasotzen.

Zeraukera daukazu Victor Ullateren dantza eskola horretan? Arratsaldeko klaseetara joaten naiz orain. Maila altuagoetan, goizeko klaseak jasotzen dituzte: zenbateta maila altuagoa ordu gehiago dira. Hortik, irakasleek edo Victor Ullateren konpainian sartu zaitezkeela esan arte egiten duzu lan.

Zergatik aukeratu zenuen Madrileko ikastera joatea?

Eskola oso ona delako, eta Victor Ullate bera ere oso ona delako dantzariak ateratzentz. Ikusi nuen aukera gehiago izango nuela hemen a kontserbatorio batean baino.

Noiztaz elan erabaki duzu zure etorkizuna dantzagaz lotuta erakiki gura duzula?

Orain bi-hiru urte erabaki nuen. Hasieran ez neukan pentsatua dantza klasikoan jardutea, baina asko-asko gustatu zitzaidan.

Asteburuko lako ekitaldian parte hartzen duten beste dantzarien jardutea berezia da? Bai. Dantzari profesionalak hain gertutik entseatzen ikustea oso berezia da, eta emanaldian zelan jarduten duten hain gertutik ikustea ere oso hunkigarria izan zen.



“Royal Ballet-eko eta Munich-eko baleteko bakarlariek ere hartu zuten ekitaldian parte”

Beste zer dantzariak hartu zuten Euskaldunako ‘Euskaldunak eta Dantza’ emanaldian parte?

Euskal dantza modernoan diharduen Andoni Arestiren eskolako hamardantzari inguru egon ziren, eta Royal Ballet-eko eta Munich-eko baleteko lehenengo bakarlariek ere hartu zuten emanaldian parte, besteak beste.

Ikusi zenuenetik zer iruditu zitzaiun berezieta?

Gehien gustatu zitzaidana dantzarien koreografin artean daukaten haritu-emana izan zen: bikotekideen arteko haritu-emana trasmititu egiten da dantzan, eta elkarren artean zelako erlazio ona daukaten ikusteak harritu ninduen.

Dantza neoklasiko-garaikideko lana aurkeztu zuen Bilbon



“Libre, ni neu sentitzen naiz dantzan egiten nabilen bitartean”

Orain urte bi, epaimaihiaaren aipamen berezia jaso zuten dantza bikoteak eta Maider Gonzalezek Bilboko lehiaketan; iaz, dantzari gazteen lehiaketan lehengoa izan zen bakarlariei legez.

Dantzari gaztearen orain arteko jendaurreko berezieta izan zen zapatukoak, edozelan ere, bere beretan: emanaldiaren amaieran euskal dantzak eskaini zituzten guztiak elkarrekin, eta zutunik txaloka erantzen zuen Euskaldunako publikoak. Halako oholtza batetik jardun arren, bere irakasleek goraipatzen duten templeagaz jardun zuen Maiderrek. “Ez nintzen urduri ipini”, diosku.

Euskal Herrian dantza ez dela serio hartzentz ere esan digu Maider Gonzalez gazte durangarrak, eta dantzagaz lotuta Euskal Herrian konpainia baten inguru dantza eskola bat sortzea gustatuko litzaiokela etorkizunearan.

Marta Hernandez dantzari profesionala izandakoa du Madrilen irakasle: “Bizi izan dituen eran, berak erakusten digu eskolatik kanpora zelan diren gauzak”.

Gorputzarentzako lan gogorra da, Maiderrek aitortu duenez, egunero ordu bi eta erdian geratu barik dantzan jardutea, baina “dantza egiterakoan ni sentitzen naiz, libre moduan”, dio.

Zuk Carolina Chicok Granadosen musikagaz osaturiko ‘Mascherata’ lana aurkeztu zenuen zapatuan Bilbon.

Bai, Carolina Chicogaz montatutako koreografia da ‘Mascherata’. Enrique Granadosen musika dauka, eta azken astean Carolina Chicogaz eta L’atelier eskolako Oiane Azkonizaga zuzendarriagaz prestatu dut. Dantza neoklasiko-garaikideko bost minutu eta erdi inguruko lana da.

Zeraipatu zizuten Bilbora ikus-tera joan zitzaizkizun irakasle, lagun eta lankideek?

Guztiek zoriondu ninduten. Irakasleek emanaldian zehar eduki nuen presentzia eta templea azpimarratu zitzuten. ■ I. Esteban

MUSIKA > OMENALDIA

Euskal Herriko txistulari elkartea Zilarrezko Domina eskainiko die bihar Aroma eta Barruetabeñari

Euskal Herriko hainbat lekutatik etorriko dira azaroaren 5eko omenaldian parte hartzen txistulariak. Juan Antonio Aromak eta Karmelo Barruetabeñak jasoko dute omenaldia

Bihar, 09:30ean, Durangoko Udal-letxeen abiatuko duten txistularien kalejiragaz ekingo diote Juan Antonio Aroma eta Karmelo Barruetabeña txistulariak omen-zeeko antolaturiko egitarauari.

Hainbat musikarik hartuko dute azaroaren 5erako Euskal Herriko Txistulari Elkarteak antolatu duen omenaldi ekitaldian parte. *Alkatesoinua* kantaren emenaldia egingo dute, eta omenduei harrera egingo diente agintariekin ondoren. Durangoko San Agustin kulturgunean izango da omenaldiako ekitaldi nagusia: Euskal Herriko Txistulari Elkarteko presidentearen eskutik jasoko dute musikari biek zilarrezko domina.

"Durangaldean hain ezagunak diren txistulari biek bizitza osoa daramate txistuaren doinua nonahi zabaltzen", diote bultzatzaileek; "Zaletasunez, herriareki-ko konpromisoz, eta txindurri lanean" jardun dute.

Zazpi urte zeuzkanetik jotzen du Juan Antonio Aromak txistua,



"Zaletasunez eta
herriagatik" jardun izana
eskertuko diete

eta bederatziz euzkanetik Barruetabeñak. Durangaldeko hainbat dantza talderi musika jartzen jardun dute biek hamarkadetan, eta *Durango dantzan* (1776-1960) liburua eta *Iurreta dantzak* disko argitaratu dituzte. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Arantza Arrazola
San Agustingo
kudeatzailea



Zirkuaz

Akorduan daukat txikitak Bilboko osaba-izebek zirkura eroaten gintztenekoa, egun batzuk lehenagotik lehengusuak aztoratuta ibiltzen ginen, nahiz eta niri ez larregi gustatu: animaliek beldurra ematen zidaten, eta pailazoak leloak-edo iruditzen zitzakidan. Hori bai, akrobatei begira liluratura gelditzen nintzen... Ia 30 urtetik gora joan dira ordutik!

Halakoak pasatu zitzakidan burutik domekan, Gasteizko Printzipalean zirku emanaldi bat ikusten ari nintzel. Nola aldatu diren gauzak, esaten nion nire buruari, umez eta gurasoz leporaino betetako antzokiari begira.

Jakina zirku tradizionalak jarraitzen duela, hala ere, saso berrietara egokitzen jakin dutenak ere badaude; abreak eta trikimailuak alde batera utzi eta euren egiteko eta talentua arte bilakatu dutenak. Gero eta gehiago dira, eta antzokieta-ko programazioan ikusten ditugu; bai umeentzat bai helduentzat. Klonak eta akrobatak antzokiak hartzen hasi dira, oso lan borobilekin, gainera: ikusteko ederrak, finak-hunkitzeko bestekoak-, eta propio sortutako koreografia, musika eta ametsak gogoratzen dituen estetikarekin. San Agustinen bertan, Enfilat kataluniarrek halaxe erakutsi ziguten.

Proposamen bikainenak Europatik dator, Compañía EI A, Companie Coliflor edota Company XY.

Gehienak ez dira gure aurrekontuetan sartzen, beraz, non edo non iragarrita ikusten baditzuzue, aprobetxatu ezazue aukea... eta on egin diezazuela!

Azaroaren 5etik aurrera,
egunkariarekin



Mantangorriren eskulan tailerra

24 fitxaz osatutako eskulan bilduma

Adina: 6-12 urte

**sortuz jolasteko,
jolastuz sortzeko**

4 FITXAZ OSATUTAKO 6 SORTA

Azaroak 5, larunbata,
lehenengo sorta
BERRIA + 3,5 €

karpeta eta
ariketen CDa
OPARI

Nola eskuratu?

Azaroaren 5etik abenduaren 10era, larunbatero kioskoan, BERRIArekin

Egilea: Karmele Cruz

Babesleak



Kultura, Goberna eta Kult. Departamendua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte



Gipuzkoako Foru Aldundia
Deputación Foral de Gipúzcoa

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria info

2011/2012 ikasturtea

20
urteko
esperientzia

2009  Ikain
euskararen
karriake zuriagokoia

Matrikulazioa zabalik hiler!!

DATAK / Fechas

DATAK / Fechas	EUSKAL BARNETEGIAN	PENTSIO ERDIAN
Urriaren 3tik azaroaren 11ra	15 563,50 €	599,25 €
Azaroaren 14tik abenduaren 22ra	26 690,04 €	623,22 €
Urtarrilaren 9tik 31ra	17 451,18 €	407,49 €
Otsailaren 1etik 29ra	21 557,34 €	503,37 €
Martxoaren 1etik 30era	22 583,88 €	527,34 €
Apirilaren 16tik maiatzaren 11ra	18 477,72 €	431,46 €
Maiatzaren 14tik ekainaren 1era	15 398,10 €	359,55 €
Ekainaren 4tik 29ra	20 530,80 €	479,40 €



Larrea auzoa, z/g · 48340 Amorebieta · Bizkaia
Tel.: 94 630 83 04 · Faxa: 94 630 89 09
barnetegi@aurtenbai.com
www.aurtenbai.com

MUSIKA > ELKARRIZKETA

Disko honen aurretik beste grabaziorik egin duzue?

Mañariko lehiaketa irabazita, maketa grabatu genuen Iditu Recordsen. Grabazio hura egin genuenean, ez genekien ziur zer gura genuen, eta nahiz eta momentu hartan pozik egon, gaur egun, grabazio hura apur bat ukatu egiten dugu.

Zerk batzen eta bereizten ditu kantak?

Ez dira maketakoak bezain homogeneoak: estilo askori begira egin ditugu. Maketan denek zuten rock and roll arinaren puntuak, eta orain, beharbada, punto hori apur bat alde batera utzi eta abesti metaleroagoak edo lasaixeagoak egin ditugu. Uste dugu emaitza entzun eta gero, jendeak apreziatuko dituela aldaketa txiki horiek, baina Namek Planeten esentziak—esentziarik izanez, gero—jarraitzen du.

“Guztiz autoproduxitutako lana izan da: grabaketatik inprintara heldu arte”

Non eta noizegin duzue ‘Paradisua’ lehenengo disco honen grabazioa?

Ondarruko Santos Estudioan grabatu genuen, uztailean eta irailean, diskoa. Igor taldekeideak bertan egiten du lan, eta gozamena izan da estudioan gure musika egiten lokalean legez aritu ahal izatea.

Zelako sentsazioagaz geratuzareteemaitza entzunda?

Pozik geratu gara emaitzagaz. Guztiz autoproduxitutako lana izan da gurea: musika grabatzetik hasi eta inprintara heldu arte. Horrek lan gehiago eskatzen dizu, eta buruhauste gehiago ekarri ere bai, baina emaitza ikusitakoan harro sentitzen zara. Zelan funtzionatzen duzue kantak sortze-



I.Gorriti

“Gozamena izan da estudioan lokalean legez aritu ahal izatea”

Azken 4 urteotan, Madril, Brasil eta Londresen ibili dira Namek Planet-ekoak. Fisikoki aldenduta egon dira, baina taldeari eutsi egin diote. Elorrioko Ateneoan aurkeztuko dute, azaroaren 11n, ‘Paradisua’

“Jendeak aldaketa txiki horiek apreziatuko dituela uste dugu”

ko? Non batzen zarete entseguetarako?
Egia esanda, disco honetarako kantak egiteko modua ez da oso ohikoa izan. Elorrioko lokal publikoetan batzen gara, eta normalean Jokinek eta Iñakik egiten dituz-

te kanten oinarriak. Gero, denbora dauka-gunean laurok elkartzen saiatzen gara, eta biek eginiko oinarri hori osatzen joaten gara. Azken bi urte hauetan izan dugun egoeraren aurrean, Igorrek mezu elektronikoz bidalitako abestiak ere ikasi izan ditu.

Diskoa aurkezteko: Elorrio. Berezia da

“Oso leku polita da Ateneoa: txikia, erosoa, beroa... Kontzertu on baterako lekukik onenetarikoa”

zuentzat lehenengo diskoa Ateneoko oholtzan jota aurkeztea?

Laurok lehen aldi jo genuen kontzertua Ateneoan izan zen, Surfin Kaosekin bateria. Aspaldi izan zen hori, baina leku berezia da guretzat. Gainera, oso leku polita da kontzertuak egiteko: txikia, erosoa, beroa,... Kontzertu on bat emateko egon daitetik lekukik onenetarikoa da. ■ I.Esteban

Disko euskarri fisikoan zein digitalean zabalduko dute

“Gauregun musika mundua krisian dagoe-la-eta inork ez lukeela gure aldeko apustua egingo kontuan hartuta”, diote Elorrioko musikari gazteek, “diskoa guk geuk zabaltzea erabaki dogu”. Euren lehenengo diskoko hamaika kantak euskarri fisikoan bakarrik ez, Spotify, Groovesharken eta Itunesen ere ipini dute entzungai, eta gutxi barru deskargatzeko aukera ere eskainiko dute Facebook eta Myspace-an.

Diskoaren *Paradisua* izenburuaren eta azaleko irudiaren arteko kontrastea bilatu dute: “Instituzioetatik dena politik polit erakusten digute, baina errealtitatea

Euskal Herriko gazteen %50 langabeziango dagoela da; edo Libian diktadore bat kendu dutela diote, eta jadanik atera direla petrolioagaz zer egingo duten esaten duten lehen informazioak”, diote, “eta hori guztia Afrika eta ia mundu erdia gosez hiltzen den bitartean”.

‘Paradisua’ izenaren eta azaleko irudiaren arteko kontrastea bilatu dute

Orain hiru urte Mañariko III. Maket Lehiaketa irabazi zuen Namek Planet taldeak, eta ordutik bidaiatzeari zein kantak sortzeari ez diote utzi: disco honetako zenbait Eskozian edo Amsterdameko parke batean sorturikoak dira.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia



AZAROAK 4 22:00etan
KIM SALMON MEETS KILL
DEVIL HILL + XABI & PETTI
KONTZERTUA. Sarrera: 12-15 euro.

AZAROAK 9 20:00etan
INDARKERIA MATXISTAREN
AURKA. ZINE PROIEKZIOA. Doan.

AZAROAK 10 20:00etan
ENAUT ELORRIETA
KANTUAREN KANTOIAN
BERBALDI MUSIKATUAK. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



EN ATTENDANT
L'INATTENDU
Nats Nus Danza
Azaroak 6 • 19:00

SAN AGUSTIN
EZAGUTU
BISITA GIDATUAK
Azaroak 9 • 19:30

San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

arte kalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

KIROLAK >

Euskadiko lau trinketelari onenak lehiatuko dira gaur Tornosolon

Euskadiko buruz buruko txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte Abadiñoko trinketean



Ander Antxia abadiñarra buruz buruko txapelketa irabazteko faborito nagusietako bat da.

Gaur, 19:00etan, Euskadiko buruz buruko trinkete txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte Abadiñoko trinketean. Finalaren atarira heldu diren lau pilotarietako hiru etxe-koak dira: Rober Uriarte eta Ander Antxia abadiñarrak eta Mikel Gonzalez berriztarra. Laukotea Mikel Rafael arabarrak osatzen du.

Gaurko lehenengo finalerdian Mikel Rafael eta Rober

Uriarte lehiatuko dira. Rafaelek Migeltxo Lopez de Egilaz kanporatu zuen Bilboko Miribilla trinketean jokatutako final-laurdenean (40-29). Rafaelek iazko urte amaieran eman zuen ezker hormatik trinketerako urratsa, eta denbora gutxian gora egin du. Rober Uriartek ere erraz irabazi zion Mikel Landari (40-17).

Bigarren finalerdian Mikel Gonzalez eta Ander Antxia

neurtuko dira, eta batak zein besteak ezingo dute nekea aitzakia moduan erabili, Uriartek baino errazago lortu zuten-eta sailkatzea. Antxiak 40-15 kanporatu zuen Lier Gandiaga, eta Gonzalezek 40-12 Inhar Ugarte.

Finala zein hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida azaroaren 11ko barikuan, 19:00etatik aurrera, jokatuko dituzte Abadiñoko Tornosolo trinketean. ■ J.Derteano.

Lautik hiru pilotari eskuadekoak dira:
Mikel Gonzalez, Rober Uriarte eta Ander Antxia

Garaipena Nafarroako zirkuituko azken proban

Aitor Martinezek irabazi egin du Serie 600eko azken proba; sailkapena bigarren amaitu du

Nafarroako zirkuitu berrian hainbat mailatan denboraldiko azken lasterketak lehiatu dituzte orainatsu. Aitor Martinez abadiñarrak irabazi egin du 600eko serieko motorrek zein sport delakoek batera lehiatu duten lasterketan. Sailkapen nagusian bigarren

amaitu du abadiñarrak, 66 puntugaz; Serie 600eko kopa Aitor Amadok irabazi du 111 puntugaz. Txapelketa ere irabaziko zukeen abadiñarrak lasterketa bitan, lider zihola, batean erori eta bestean motorreko katea apurtu ez balu.

Fly Group Racing Teameko gaztetxoei dagokionez, Iker Torrontegik bigarren amaitu du 125 zentimetro kubikotan, eta Oier Cascante hirugarren 80 z.k.-tan. Yaret Cascanteek berri, Ipar Eremuko Txapelketa irabazi baitu 70 z.k.-tan. ■ J.D.



Podiumeko koska gorenera igo zen Aitor Martinez.

Fly Group Racing Team-eko gaztetxoak ere goi mailan ibili dira

Estatu mailan parekorik ez duela erakutsi du Murgoitiok

Lau egunean garaipen bi lortu ditu Hirumet taldeko Egoitz Murgoitiok ziklo-krosean. Joan zen asteburuan Karrantzan Lozanok bakarrik eutsi zion eritmoa, baina matxura bategatik lasterketa utzi behar izan zuen Lozanok. Martitzenean, Muskizen, lehenengo itzulian ihes egin eta erraz nagusitu zen. Hirumet taldeko Pablo Rodriguezek 23 urtez azpiko lasterketa ere irabazi zuen.

Gaur egun, Murgoitio munduko sailkapeneko 37 postuan dago, eta estatu mailako hurrengo txirrindularia hamar postu atzerago du sailkapen horretan. ■ J.D.

Kulturalak ondo aprobetxatu du aurrekoen hutsa

Play off postua begi bistan duela bisitatuko du Durangoko Kulturalak bihar Leioa. Azken jardunaldieta, apurka-apurka, aurrekoekiko zuen tartearen joan dira, eta bide horretan paregabea izan zen joan zen asteburuko jardunaldia. Barakaldo liderrak hiru puntuak batu zituen, baina hurrengo hiruretak batek ere ez zuen irabazi. Kulturalak, aldiz, hiru puntuak batu zituen etxearen Eibar Bren aurka (1-0), eta play off postuen borrokan sartu da bete-betean.

Durangarren biharko areario Leioa ere sasoi betean dago. Ez du galdu azken bost jardunaldieta, eta horietatik hirutan irabazi du. ■ J.D.

Mikel Bereikua Durangaldeko azken ordezkarria

Atzo Eneko Calleja kanpoan geratu ondoren, Cafés Baqué pilota txapelketan Durangaldeko ordezkarri bakarra geratzen da: Mikel Bereikua irretarrak. Calleja irretarrak 7-18 galdu zuen atzo Prado errioxarraren kontra. Bereikuak Garaio nafarraren kontra jokatuko du datorren eguztenean, hilaren 9an 19:00etan, Iurretan.

Atzo Agirre arabarrak García errioxarrak eta Elezcano zaratamoarrak ere aurrera egin zuten. Datorren astean González-Gómez, Larunbe-Atutxa eta Esteban-Sánchez partidak ere jokatuko dituzte. ■ J.D.

Sokatirako erreferente bihurtu gura dute berriro

Asteburuan hasiko du denboraldia Abadiño Sokatira Taldeak; Jon Gorospe foruarrera eta Igor Altuna eibartarra taldera batu dira



Asteburuan 320 kilora arteko txapelketan parte hartuko dute Abadiñoko hiru taldek.

Abadiño Sokatira Taldeak asteberu honetan egingo dio denboraldiari. Abendu-rra bitartean lauko txapelketetan murgilduko dira, eta urtarriletik aurrera zortzikoei ekingo diete. Aurtengo helburua garbia da: iaz goma gainean galdu zuten hegemonia berreskuratzea.

Iaz arte goma gainean ez zen itzalik egingo zienik; zortzi urtez segidan zortzi tiralariko pisu guztiak txapelak jantzi zituzten. 2011ko otsailean erregetza hori hautsi egin zen; 640 kilora artekoan hirugarren gera-

tu ziren, Sokarri eta Ibarraren atzetik. Arerten iazko taldeari eutsi diote, eta entrenamenduak zein prestaketa zorrotzu egin dituzte: "Gogorrago ari gara; talde osoa kontzientziatuta dago eta serio ari da lanean. Berriro goma gaineke erreferente iza-tea lortu gura dugu", dio Edu Mendizabal entrenatzaleak.

Asteberu honetan eta hurrengoan 320 kilora arteko kanporaketak lehiatuko ditu Abadiñok; hiru talde aurkeztu dituzte txapelketara. Finala azaroaren 19an jokatuko da.

Tiralari berri bi
Iazko taldeari eusteaz gainera, arerten tiralarri berri bi batu dituzte: Jon Gorospe foruarrera eta Igor Altuna eibartarra: "Gu bila joan beharrean eurek erakutsi zuten sokatira probatzeko interesa, eta guk beso zabalik hartzitugu", dio Edu Mendizabalek. Foruan sokatira talde bat eratu zuten eskualde mailako txapelketa baterako eta horixe da Gorospek sokatiran duen esperientzia bakarra. Altuna Arrasate Rugby Taldean eta Zarauzko Arraun Elkartean ibilia da. ■ J.D.

Bigarren eskuko merkatua egingo du Alpino-Tabirak

Alpino-Tabira mendizale taldeak mendiko materialen bigarren eskuko merkatua egingo du, azaroaren 11n eta 12an, Goienkalen daukan egoitzan. Azaroaren 11ko barikuaren 17:00etik 21:00etara egingo da zabalik, eta azaroaren 12ko zapatuan, 11:00etik 14:00etara eta 17:00etik 21:00etara.

Saldu gura den materiala azaroaren 8an eta 10ean era- man daiteke Alpinoko egoitza- ra, 20:00etik 21:00etara.

Bestalde, oraintsu Alpino- Tabira mendizale taldeko lehendakaria aukeratzeko batzar orokorra egin dute. Ez da hautagairik aurkeztu, eta ondorioz Iñaki Calvok (56 urte, Durango) jarraituko du beste hiru urtez lehendakari moduan. 24 urtean idazkari ere izana da Calvo. ■ J.D.

Arizmendarreta eta Garcia irabazole Urkiolan

Guztira, 300 korrikalarik parte hartu zuten

Oier Arizmendarreta durangarrak 1.15.54ko denboran osatu zuen Durangaldeko Maratoi Erdia. Pierre Urrutu sailkatu zen bigarren, eta Dabid Garcia durangarra hirugarren. Emakumeetan Iraia Garcia gailendu zen (1.31.28); Cristina Loeda eta

Elena Calvillok osatu zuten podiuma. 11 kilometrokoan, Francisco Javier Costana izan zen azkarrena, Alberto Legido eta Iñaki Martinezen aurretik. Emakumeetan Silvia Martin, Irati Sarriugarte eta Alazne Madaria- ga igo ziren podiumera. ■ J.D.



Arizmendarretak irabazi zuen gizonetan. Mikel Sanchez

Olinpiar Jokoak buruan, Cespak Munduko Kopa hasiko du gaur

2012an Londresen jokatuko diren Olinpiar Jokoak ate joka daudela, Cespa-Euskadik pistako Munduko Kopari ekingo dio gaur Kazakhstan-en. Kopak beti garrantzia handia badu, aurten zer esanik ez, izan ere Londreserako txartelak daude jokoan.

Cespa-Euskadi taldetik Ana Usabiaga, Unai Elorriaga Hodei Mazkiaran eta Tania Calvo joango dira, baina azkeneko biek Spainiako Selekzioagaz parte hartuko dute. Usabiagak puntuazio proban eta, segurutik, omnium-ean parte hartuko du. Elorriaga ere omniumean ariko da. Mazkiaran eta Calvok abiadurako probetan parte hartuko dute.

Europako txapelketan
maila onean ibili dira
Mazkiaran eta Calvo

Oraintsu, Herbeheretako Europako Txapelketan izan dira Tania Calvo eta Hodei Mazkiaran selekzioagaz. Unai Elorriaga ez da egon hautatuen artean: "Ez dugu ulertzen, urteak daramatzalako goi mailan", diote Cespa-Euskadi taldeko ordezkariek.

Calvo finalera heldu zen Keirin modalitatean –10. amaitu zuen– eta Mazkiaranek ere B mailako finala jokatu zuen modalitate berean. ■ J.D.

Agenda

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA
Durango Iiarduya - Bera Bera

Domekan, 12:30ean,
Arripausuetan
EUSKAL LIGA

Durango Iiarduya - Independiente

Zapatuan, 16:00etan,
Arripausuetan

Elorrio Parra Taberna - Hernani B

Zapatuan, 16:00etan,
Elorrioko errugby zelaian
SUKIA ERRUBGI ESKOLA
Kontzentrazioa, Zapatuan, 10:30ean, Arripausuetan

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA
Elorrio - Getxo

Zapatuan, 16:00etan,
Eleizalden
GOREN MAILA

Iurreta - Ugao

Zapatuan, 17:00etan,
Larrakozelain

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA
Sasikoa - Naturgas

Zapatuan, 19:30ean,
Landako kirolegian

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA (emakumeak)
Tabirako Baqué-Burlada

Zapatuan, 19:00etan
Landako kirolegian

PILOTA

OLAZAR TXAPELKETA

Lau t'erdián

- Oronoz / Urretabizkaia

Binaka

- Albarado-Perez / Andreu-Irureta

Azaroak 10, 21:30,
Zaldibarko pilotalekuan

Mendi Astea antolatu du Erdellak Elorriion

Azaroaren 7tik 11ra, Iturri kultur etxearen

Azaroaren 7tik 11ra bost hitzaldi eta bideo emanaldigaz osatutako Mendi Astea antolatu du Erdella Mendizale Taldeak.

Azaroaren 7an Ane Hernanik Marimendi Perun izeneko hitzaldia eskainiko du, eta hurrengo egunean Adolfo Madinabeitiak Venezuelako Tepuy Acopan bizitako abenturekin osatutako *Mundo Perdido* lanari buruz jardungo du. ■ J.D.



Adolfo Madinabeitiak 'Mundo perdido' aurkeztuko du.

Eraiki zubia **EUSKAL HERRIARI**

Ekitaldi nazionala

**ZORNOTZA
AZAROAK 11**

19:00etan, Zelaieta frontoian

www.amaiur.info



LAUHANKA >



Deformazioa,
kolore falta eta
argaltasuna dakartza
tuberulosiak

Tertziopeloaren
gaitza osatzeko,
metileno urdina
erabili daiteke

Idorreria sendatzeko,
gatza botako dugu:
lau litroko koilara
bete gatz

Arrainontzian bizi diren arrainen gaixotasun ohikoenak

Etxean dauzkagun arrainen egoera maiztasun jakina jarraituz aztertzea komeni da, arrain batek pairatu ditzakeen gaixotasunen aurka egiten ez badugu, ontziko gainerako arrainak ere kutsatu ditzake-eta.

Etxean izan ohi ditugun arrainek lan gutxi ekartzen dute normalean; jatekoa eman, arrainontzia garbitu... Ez dago konparaziorik txakurra edo katuagaz, esaterako. Dena dela, arrainak zaintzea ere beharrezkoa da, batez ere, gaixotasunen bat eduki dezaketea pentsatzen dugunean.

Tuberulosia

Larrienetakoa da. Deformazioa, kolore galera eta argaltasuna ekartzen ditu, besteak beste.

Puntu zuria

Ichthyophthirius multifiliis parásitoa epidermisean sartu eta globulu gorriak hartzerakoan sortzen da. Puntu zuriak ager-

ten direlako igartzen da. Parasitoa irtetzean, dendetan saltzen duten produktua isuri behar da.

Tertziopeloa

Aurrekoaren antzekoa da, baina larriagoa. *Oodinium limneticum* parásitoak sortzen du, eta hauts zuri bat azaltzen da arrainaren gorputzean. Osatzeko, metileno urdina erabili daiteke, ur kantitatean %1eko mailan.

Maskuriaren disfuntzioa

Igeri egiteko maskurian, gasaren presioan disfuntzioa gertzean sortzen da. Temperatura aldaketa handiek eragiten dute, normalean. Ez da kutsakorra, eta egun batzuetarako gutxi


kubritzen duen ontzi batera lekualdatuko dugu arraina.

Hegalen galera

Hegalak murrizten hasten zaizkio, desagertzeraino. Bakterianoa da, eta uraren tenperatura igoz zein higiene onagaz konponduko da.

Idorreria

Arrainaren gorputza puztuta dagoelako somatu daiteke, baita gorozki luzeengatik ere. Urontzira gatza botako dugu: lau litroko koilara bete gatz. Bestalde, hidropsia izeneko gaitza gorozkiengen bidez transmititzen da, ontzi osoa kutsatu daitekeelarik. Botikak eman beharko dizkiogu.



INMOBILIARIAK >



AMBOTO
INMOBILIARIA

San Agustinale, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 35 62 • iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- Apartamentu berriak eraikitzetan. 119.000€-tik AURRERA. EZ GALDU AUKERA HAU.
- EZKURDI: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trasteleku.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garaje aeta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berritzatzeko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO: 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Eraikuntza berriak. 2, 3 eta logela bakarrekoak. Durango erdialdean.
- BARRENKALE: AZKENeko DUPLEXA. Eraiki berriak. Berehalako banaketa.
- ANDRA MARI: 150 m2. 5 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Leku onean kokatua.
- Taberna salgai. 100m2. Instalazio guztiekin. Prezioa negoziagarria da.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarra, sukalde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trasteleku.
- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trasteleku eta ganbara.

Zoragarria.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trasteleku.

TXALETAK-BASERRIAK SALGAI

URRUTXA

- Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunitatuta. Prezioa adosteko prest.

DIMA

- Baserria salgai. 4.000 m2-ko lursaila. Balzola-ko kobetatik gertu.
- Baserria salgai. Hektarea bateko lursaila. Indus zonaldean.

MALLABIA

- TRABAKUA: Baserria. 140m2 solairuko. 20.000 m2-ko lursaila. Durangotik 10 minutura.

OTXANDIO

- SEI ADOSATU ERAKITZEN. 298.000€-tik aurrera.
- Guztiz berriztuta dagoen baserria. 3 solairu, sukaldea, egongela – jangela, 2 komun, 3 logela, egongela eta atikoa.

ABADIÑO

- MENDIOLA: Bifamiliarra. Eraiki berria. Estreinatzeko. Informazio pertsonalizatua.
- Bifamiliarra. 4 logela eta 3 komun. Garajea, trasteleku – txoko. Lorategia barbakorekin. Leku onean kokatua.

GORRI

- Adosatua salgai. Estreinatzeko. Leku ezin hobeantur. Kokatua.

LUR SAILAK SALGAI

IURRETA

- 2.000 m2-ko lursaila salgai. Leku zoragarria. Sarbide ona.
- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera.

LEMOA

- 2.800 m2 eta 2.700 m2-ko lursailak eraikitzeko baimenarekin. Prezio interesgarria.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxe ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

EUBA

